

Esportazioen prezioak % 4,7 igo ziren 2023ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEn

Urteko balantzean, esportazioen prezioak % 8,7 igo ziren 2023an

2023ko laugarren hiruhilekoan esportazioen prezioak %4,7 igo dira 2022ko hiruhileko beraren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Alderaketa aurreko hiruhilekoarekin eginez gero, %0,2ko gorakada izan da.

Inportazioen prezioek joera bera dute: %4,3 igo dira urte artean eta %0,2 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Esportazio energetikoen balio unitarioaren indizea %9,3 hazi da aurreko urtearen aldean, eta ez-energetikoena %5,0. Aurreko hiruhilekoaren aldean, ondasun energetikoen prezioak %1,3 jaitsi dira eta ez-energetikoenak %0,2 igo.

Inportazioen kasuan, produktu energetikoen prezioen indizea %7,9 hazi zen urte arteko tasan, eta ez-energetikoena %3,2. Hiruhileko arteko alderaketan, energia-prezioak %1,0 jaitsi dira eta ez-energetikoen kasuan %0,9 igo.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2023/IV

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	0.2	4.7	0.2	4.3
Energiazko gaiak	-1.3	9.3	-1.0	7.9
Energiazkoak ez diren gaiak	0.2	5.0	0.9	3.2
Kontsumo-ondasunak	-0.3	2.6	3.9	2.6
Kapital-ondasunak	3.3	6.8	4.7	15.4
Bitarteko ondasunak	-0.4	4.9	-0.6	3.5

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2024ko Martxoaren 27a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen **helburu ekonomikoaren** arabera sailkapenari jarraituz, nabarmentzekoa da aurreko urtearen aldean igo egin direla Kontsumo-Ondasunen (%2,6), Bitarteko Ondasunen (%4,9) eta, bereziki, Kapital-Ondasunen (%6,8) esportazioen prezioak. Hiruhileko arteko terminoetan, Kapital-Ondasunen prezioak (%3,3) gora egin du, Kontsumo-Ondasunenak %0,3 eta Bitarteko Ondasunenak %0,4.

Azterketa inportazioetara bideratuta, hiruhileko arteko konparazioan Bitarteko Ondasunen prezioak (%-0,6) jaitsi dira, eta urte artekoan %3,5eko hazkundera izan dute. Bestalde, Kapital-Ondasunen eta Kontsumo-Ondasunen prezioak igo egin dira bi konparazioetan.

Esportazioen xede diren **arlo ekonomikoak** kontuan hartuta, 2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, prezioek behera egin zuten eremu guztietan, ELGAn izan ezik (%0,4). Eurogunean %1,1 jaitsi dira, EBn eta munduko gainerako herrialdeetan %0,6. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Euroguneak %0,3 egin du atzera, eta gainerako eskualdeek tasa positiboak izan dituzte, batez ere Munduko gainerako eskualdeek (%15,6).

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2023/IV

	ESPORTAZIOAK		IMPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	0,2	4,7	0,2	4,3
Euro eremua	-1,1	-0,3	0,5	3,4
EB-28	-0,6	1,2	2,0	6,1
ELGE	0,4	2,8	1,7	7,9
Munduko besteak	-0,6	15,6	-2,3	-2,7

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2024ko Martxoaren 27a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioei dagokienez, Munduaren Gainerakoa da tasa negatiboak dituen eremu geografiko bakarra, bai hiruhilekoen arteko konparazioan (-%2,3), bai urte artekoan (-%2,7). Gainerako eremu geografikoetan prezioak igo egin dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta igoera horiek EBn nabarmendu dira (%2,0). Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ELGaren kasua da deigarriena, %7,9ko hazkundearekin.

Urte osoan, behin-behineko datuen arabera, esportazioen prezioak %8,7 igo dira, produktu energetikoen prezioak %10,7 eta ez-energetikoenak %9,2. Inportazioen UBlak ere hazi egin dira, baina tasa apalago batean, %6,2tik indize orokorrean.


Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2023

	ESPORTAZIOAK	IMPORTAZIOAK
	2022 / 2023	2022 / 2023
Indize orokorra	8,7	6,2
Energiazko gaiak	10,7	5,3
Energiazkoak ez diren gaiak	9,2	6,7
Kontsumo-ondasunak	9,2	2,8
Kapital-ondasunak	6,9	14,2
Bitarteko ondasunak	9,2	5,9

Data 2024ko Martxoaren 27a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62